

# B

BARREN

## Mikel Lizarralde, adin txikiko etorkinekin lanean



# “Ilusioa da garrantzitsuena”

Lanean elkar ezagutu zuten Miren Etxeberria eta Gorka Agirregomezkorta elgoibartarrek eta Jon Silvares eibartarrak, mekanizatu tailer batean, orain dela bost urte. Euren kabuz lan egiteko gogoak negozio propioa zabaltzera bultzatu ditu. Mekanizatu orokorreko tailer osagarri bat dute. Sigmako industria-gunean aurkitu ditzakezu, Xixilion kalean.

## Zergatik erabaki zenuen zeure enpresa martxan jartzea?

Hirurok batera egin genuen lan beste enpresa batean, orain dela bost urte edo. Gero Jonek alde egin zuen enpresa horretatik orain dela hiru urte edo, eta nik orain dela bi urte laga nuen. Egun batean Jonekin elkartu nintzen, eta enpresa bat irekitzeko gogoia nuela komentatu nion. Jonek ere aspaldian zuen ideia hori buruan, eta bion artean egiteko proposatu zidan. Bestalde, Jonek bazekien Gorkak ere bazuela gogoia erronka honetan parte hartzeko, eta azkenean hirurak elkartu ginen.

## Zer pauso jarraitu zenituen? Zer-nolako laguntzak izan zenituen?

Hasieran, Jonek eta nik Debegesan ikastaro bat egin genuen, eta han esan ziguten enpresa berriarentzat Debegesaren laguntza bat edukiko genuela; gero Eusko Jaurlaritzak ere laguntza eman digu, eta, azkenik, makinaria erostegatik ere interesen laguntza ere lortu dugu.

## Zer ekarri dizu Debegesak?

Negozio propioa zabaltzeko lehenengo pausoa Debegesarekin kontaktuan jartzea izan zen: zer egin behar genuen eta nondik norako pausoak nola hartu jakiteko, askotan kalean entzuten delako laguntzak badaudela, baina gero ez dakizu nora jo. Ezer ez daukazuean,



zerbait lortu ahal izango duzula jakitea asko da, moralki. Animo horri Debegesak eman digu, eta, nola ez, aurrera jarraitzeko pausoak ere eurek erakutsi dizkigute.

## Zure ustez ekintzaile batek zer balore izan behar ditu?

Garrantzitsuena ilusioa, ilusioa eta ilusioa da. Ez baduzu ilusiorik horrelako erabaki bat hartzeko ezin duzu pausorik eman. Oztupoak edozein lekutan aurkitzen dira, baina ilusioarekin aurre egiten zaio horri guztiari. Lana edukiko dugula esaten dizute, eta makina erosten duzu, baina gaur egungo egoerarekin ilusiorik ez baduzu galduta zaude.

## Mezu bat jendearen espiritu-ekintzailea sustatzeko.

Lehenengo eta behin, ilusioa eduki behar da, baina baita lanerako gogoia ere, lanean ordu asko emateko inolako kezarik gabe.

# PIKUMEK

Miren Etxeberria y Otros C.B.  
Pol. Ind. Sigma Xixilion nº2 PAB7-8  
20870 ELGOIBAR  
Tel : 943.10.82.83 / 637.87.18.50  
pikumek@vodafone.es

Lanik gabe gelditu zara eta zure lehenengo enpresa jartzera animatu nahi al duzu?

Debegesak entzungo zaitu

Negozio baten ideia daukazu eta ez dakizu ze pauso eman behar dituzun?

Debegesak gidatuko zaitu

Zure enpresa jarri nahi duzu eta lanean hasteko laguntza behar duzu?

Debegesak lagunduko dizu

## Beste mundu bat posible da

Krisia gora eta behera, oraingoan ez da erraza kontsolamendua zein den jakitea, bilatu beharra badugu, ordea. Ni ere horretan aritu naiz azkenengo hilabeteotan: krisi orokor hau ulertzen. Hemen ditudan lerro eskasetan ez dut espero erantzun bat ematea, leku faltan, ezaguera gabezia ere bainago. Baina beste abesti bat gogoan, umorez sano nabil eta idaztera natorkizue gogoz.

Krisia ulertzeko, historia ere ulertzea beharrezkoa dugu. Izan ere, XX. mendea krisi eta aldabide etapa bat izan da historian. Lehen Mundu Gerra ostean, XIX. mendeko estruktura desorekatu egin zen, eta Europak bere nagusigoa galdu zuen. Geroztik krisiak ugari izan dira, munduaren hazkuntza eustezina baita: energia krisia, gosea, enpresa transnazionalak, kutsadura eta merkatal krisia, batik bat.

Gaur egun, zientzia eta teknika gizartea abiadan bultzatzen ari dira. Sistema, aldiz, atzeratuta geratu da, eta orain honetan dihardute: kontrol gabeko merkaturak konpondu nahian. Partxerik ezean, berrikuntza sakona behar du, alajaina! Nola liteke esku ikustezin batean sinistu izana, Jainkoarekiko sinismen eza bizi garen garaian, auskalo: gizakiaren handinahia, alegia.

Globalizazioa ezin dugu frenatu. Hala ere, beste mundu bat posible da. Mendebaldeko sistemaren amaiera bizi dugu, eta oso interesantea iruditzen zait momentu historiko berezi honen partaide izatea. Krisiaren ostean errekupeazioa etorriko da, eta beste hainbat krisi geroago. Gizadiaren historia pendularra da, baina bizirik aurrera doa. Oraingoan, agian, prest gaude gizakia gizartearen balore nagusi moduan kokatzeko, dirua baizik: ondasun hoberena ezaguera baitugu.

Aitziber Romero



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Mendebaldeko sistemaren amaiera bizi dugu, eta interesantea iruditzen zait momentu historiko berezi honen partaide izatea”**

**ZER IRUDITZEN ZAIZU HURRENGO  
EGUNEKO PILULA ERREZETARIK  
GABE EROSI AHAL IZATEA BOTIKAN?**

**Elgoibartarren erantzunak  
BIDEO IKESTAN**



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**www.elgoiBARREN.net**

**ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA**

# MIKEL LIZARRALDE

URGATZIKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA

“Gure profesionalen erantzuna goraipatzekoa izan da Endoiako harrera etxean”

Adin txikiko etorkinentzako harrera etxeek zeresan handia eman dute azken aldian, batez ere Endoiako zentruko (Debako udalerrian) gorabeheren ostean: istiluak, ihesak, lapurretak eta adierazpen publiko gogorrek gertatu dira, besteak beste. Zentru hori eta Gipuzkoako beste bost kudeatzen dituen Urgatzi enpresako zuzendari pedagogikoa da Mikel Lizarralde elgoibartarra. Bere iritziz, Endoiako egoera larria izan arren, komunikabideek alarma sortu dute, eta, oro har, Gipuzkoako harrera etxeetan emaitza onak lortzen ari dira, adin txikiko etorkin gehienek argi dutelako etorkizun hobe baten bila etorri direla.



Azken aldian adin txikiko etorkinen harrera etheen inguruan alarma sortu da, batez ere Endoiako gertatutakoagatik. Egoera larria da? Gipuzkoan, une honetan, harrera etxeetan 190 mutil inguru daude. Kontuan izan Debako zentruan daudela Gipuzkoan jarrera okerrera daukatenak, eta gauza okerrenak egin dituztenak. Han hamahiru daude. Batez bestekoa ateraz gero, ikusiko duzu benetan sortu dena ez dela mutil horiek sortutakoa, baizik eta prentsak nolabait plazaratu duen eztabaida, berez oso bidezkoa ez dena.

**Zure ustez, komunikabideek alarma sortu dute, beraz.**

Alarma oso handia izan da. Egia da mutil horietako batzuk sortu dituzten gauzak oso oso larriak izan direla, baina oso kasu konkretuak izan dira, oso mutil konkretuak. Mutil horiei, behintzat, eman zaie erantzun bat.

**Neskarik ez dago harrera etxeetan ala?**

Gipuzkoan hiru neska egon ziren: Deban sartu eta alde egin zuten.

**Zein da adin txikiko etorkin horien profila?**

Gipuzkoan denak marokoarrak dira. Norma-

lean, adin txikiko marokoarren bi talde nagusi daude: hiritik datozenak –Tangertik batez ere–, eta nekazari ingurutik datozenak. Nekazari ingurunetik datozenek oso intseztio ona izaten dute hemengo gizartean: oso lan ona egiten dute, arauak onartzen dituzte, eta pisuan egiten duten lana oso ona da. Tangertik datozen batzuk, beriz, berez kalean bizi ziren han. Tangerko kaleko errealitatea hemengoa baino izugarri gogorragoa da. Batez ere portuan bizi ziren. Tangerko portuan ezin dugu imaginatu nola bizi ziren, zer-

nolako egoerak bizi zituzten... Hona etortzean, dituzten eskubide guztiak ikustean, horrek guztiak gainditu egin ditu. Berez, arazo larriekin etorri dira, eta zera pentsatu dute: "Hemen egiten dudana egiten dudala ere ez da gauza handirik gertatzen".

#### **Zelan heltzen dira hona?**

Normalean gehienak kamioietan pasatu dira Tangerko portutik. Hemen pateretan etorritako oso mutil gutxi ditugu, oso-oso gutxi.

#### **Orduan ez dira asko gurasoekin batera etorritakoak eta bakarrik gelditu direnak, ezta?**

Ez, ez. Gehienak gurasoek jakin gabe etortzen dira. Etxean telebista dute, eta ikusten dute nolabait hemen ondo bizi garela, hemengo gazteek markako arropak dauzkate... Gurasoei ezer esan gabe etortzen dira. Nekazari inguruetatik datozenek, ordea, euren familiek eta inguruko familiek ordainduta etortzen dira, eta txertatze-prozesua oso argi daukate, dena oso ondo betetzen dute, ez bakarrik familiaren sostengua direlako, inguruko familien sostengua ere badirelako.

#### **Legez, zein da adin txikiko horien egoera?**

Legeaz hitz egitea ez zait gustatzen. Ni ez naiz lege gizona. Legez dakidana nire lanari dagokiona da. Lege kontuetan ez naiz sartuko, baina argi daukat 15, 16, 17 edo 18 urteko gazte bat egon daitekeen lekurik onena bere familiarekin dela. Eta legeak hori uzten ez badu, iruditzen zait legeak ez dituela neska-mutilak babesten. Pentsatu dezagun gure etxeko 14-15 urteko gaztea bidaltzen badugu beste kultura batera, hizkuntza eta balore ezberdinak dituen kulturara. Zer da egokiena? Familiarekin egotea! Ez dakit egokiena den gaztea hara joatea ala familia hona etortzea, baina familia behar dute.

#### **Familiarik ez duenik ere izango da.**

Gehienek familia dute. Urgatziren pisuetatik 190 bat neska-mutil pasatu dira, eta bakar bat ere ez dago familiarik gabe.

#### **Zein da zure lana Urgatzi enpresan?**

Harrera erresidentzialean lan egiten duen enpresa da Urgatzi. Hainbat proiektu dauzkagu, tartean Gipuzkoan. Pisu horien kudeaketa, gainbegiraketa, proiektua betetzen den ala ez, pertsonen aukeraketa eta abarren ardura nirea da. Enpresak Gipuzkoan nahi duena betetzea da nire ardura.

#### **Harrera etxeetan baliabide gutxi daukazuela salatu dute hezitzaile batzuek.**

Debako zentruko arduraduna Galiziatik etorritako mutil bat da, lan honetarako. Horrekin

asko esanda dago. Gure hezitzaile asko Gipuzkoatik kanpo bizi dira. Nik uste dut ahal den neurrian lana betetzeko ematen zaizkiela baliabideak. Nire ikuspegia hori da. Debako zentruerako, gure eskaintza zela eta, bage-neukan jende asko dena uzteko prest honaino etortzeko. Profesionalak oso garrantzitsuak dira guretzako, eta saiatzen gara euren lana ahalik eta egokien egin dezaten.

#### **Aldundiarekin harreman ona duzue?**

Ez dut kezarik. Plangintza eta guztia oso adostua edo bateratua izan da. Teknikoen aldetik harrera oso ona da, eta politikoen aldetik ere. Egia esan, Debako zentruaren inguruan hori guztia sortu zenean, Aldundiaren erantzuna oso positiboa izan zen, eta beharrezkoa. Gutaz gauza asko esan ziren...

**“Ez sinistekoak izan ziren hasierako hilabeteak, prentsan agertutakoa zela eta”**

#### **SOS Arrazakeriak zuen jarrera kritikatu zuen, esanez Endoian janari hotza ematen zutenela, dutxak hotzak zirela, adin txikikoak iraintzen zenituztela eta tratu txarrak egon zirela.**

Hori guztia gezurra da. Gezurra dela frogatzeko, esan behar dut eduki ditugula ez dakit zenbat salaketa eta ez duela aurrera jarraitu batek berak ere. Epaitegira ere ez gara heldu. Arartekoa bitan pasatu da, fiskaltza behin, eta zentruak zabalik jarraitzen du. Ertzaintza ez dakit zenbatetan etorri den. SOS Arrazakeriak, nire ustez, gauza asko egin zituen, eta horietako asko niri ez zitzaizkidan batera gustatu, esate baterako, gurekin ez hitzegitea. Esan zutena esan zuten, eta gurekin ez zen inor harremanetan jarri, galdetzeko "hau egia ote da?", "hau gertatzen da?". Bazkariarena, zuzenean, gezurra da. Gauza askok esplikazio logikoa dute, dutxarekin adibidez: mutilek berogailua hautsi zuten. Gure lana zera transmititzea da: "Zuek kon-

pondu behar duzue. Ikasi behar duzue ezin zaretela ibili egun guztia gauzak puskatzen, beste batzuek konpontzeko. Guk tresna guztiak jarriko ditugu, diru guztia. Baina konpontzeko zuen esku egon behar du. Ez dago ur berorik? Zuek konpontzen duzuenen, ur beroa egongo da". Hori izan zen prozesua. Beraiek puskatu zutelako ez zen ur berorik egon.

Daramagun denboran, mehatxu egin digute ez dakit zenbatetan. Labanak ekarri dituzte, hezitzaileei presio izugarria egin diete... Bertako mutilak oso poblazio konplikatuak dira. Gure profesionalak izandako erantzuna goraitzeko izan da. Oso egoera zailean egon dira, iritzi publikoaren erdi-erdian, inolako defentsarik gabe. Gure taldeak izan zuen erantzuna hauxe izan zen: "Guk egindako lana ona da". Horrek beste pisuetan eragina izan du. Ez sinistekoak izan ziren hasierako hilabeteak: prentsan irakurtzen genituen gauza batzuk kontrastatu gabekoak.

#### **Ez litzateke egokiagoa zentruetako etorkinek hemengo gazteekin harremana balute, atzeritarrentzako zentru berezietan egon beharrean?**

Eredu hori erabili izan da urte askoan, eta ez du funtzionatu, ez du emaitza onik eman.

#### **Baina ghetto bihurtzeko arriskua ere bada...**

Horregatik claude profesionalak. Pasa den asteburuan jaialdia egin zuten Legorretako pisukoek: Marokoko gozokiak haurrek presatatu zituzten, film bat proiektatu zuten... Herriaren eta gure mutilen arteko desberdintasunak gutxitzen saiatu gara, eta oso emaitza onak eman dizkigu. Gure lana Legorreta eta horrelakoetan egiten duguna da benetan. Debako pisuak helburu konkretua du, baina Debaren inguruan sare handi bat dago.

#### **Zer gertatzen da harrera etxeetako etorkinekin, 18 urte egindakoan?**

Berez, Aldundiak badauzka emantzipazio proiektuak, nagusitasun hori lortzeko: pisuak, bestelako laguntzak... Adin txikiko bat pisuan sartzen denean, irteera presatzen dugu. 18 urterekin bere autonomia erabat garatzea da garrantzitsua, eta nagusien bizitza honetan nolabait moldatzeko kapazitatea. Orain arte lortu ditugun intsektzio tasak nahiko onak dira. Gehienak lan bila etorri dira, Marokon ez duten etorkizun baten bila.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com).

**Eskerrik asko!**

Morkaiko mendizale elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu Elgoibarko Itzulian parte hartu duzuenoi eta baita lagundu diguzuenoi ere: Gure Bide, Karakate eta Kalamua soziedadeak; Oa Txiki eta Irunabe base-riak; Altzolako Urak eta Beristain edari banatzaileak gure egarriak asetzearren; Zahatzu urdaitegia, horren bazkari goxoa prestatzearren; Udal Kirol Patronatua; Elgoibarko Udala; Eroski; Netto; Lanbroa kafetegia; Idarraga kafeak; Patxi; Isabel Ormazabal; Landa; Iraola eta Ziarda harategiak; Dori urdaitegia; Julio Bueno ardoak; Pilar eta Bollar frutadendak; Roberto Garcia Riesgo *Txeto*; Zigor Cornejo; eta nola ez, hornitze puntuetan eta asistentzia lanetan lagundu diguzuenoi: Jaime Martinez, Valentin Txurruka, Lauko eta Javier Etxeberria.

**Morkaiko mendizale elkarteak**

**Zorionak Ainara zozaori eta Noemi beleari**

“Zer litzateke bizitza bekaturik (ilusiorik, federik) gabe?”

“Agian badugu izkutuko behar bat, zerbaitengan sinisteko”

Zerbaitengan edo zerbaitetan sinisteko izkutuko behar horretatik sortzen da kultura, erlijioa barne.

Zer da Kultura? Gizakiak errealitatearen (natura, kosmos, gizakia, ni, e.a.) aurrean egiten dituen galderei erantzunak aurkitzen dituzten jakintzak

(zientifikoak, axiologikoak, mitikoak, kritikoak, erlijiosoak...). Hori da kultura.

Gizakiak gizaki denetik (*Homo habilis*, 4 milioi urte? *Homo sapiens*, 50.000 urte?) nabaritzen du behar hori. Horregatik, prehistoriatik hasi eta gaur arte, gizakia kultura sortzailea izan da, eta horrela jarraituko du aurrerantzean ere, eta kultura horren barruan, beti erlijioak garrantzi handia izan du. Zer da erlijioa? Norbaitekin edo zerbaitekin harremanak edukitzea. Erlijio tribalek, hinduismoak, budismoak, konfuzianismoak, taoismoak, judaismoak, kristautasunak, islamismoak eta abarrek, denek, zerbaitekin edo norbaitekin sinisten dute. Guk kosmosa ez dugu egin; berez sortu da? Ezerezetik zerbait sortu daiteke? Zergatik dago errealitatea eta ez ezereza?

Gaurko munduko egoera ulertzeko, ez da nahikoa zientzien lorpenak eza-gutzea, baita ere erlijio jaietan jakintsua izan behar da.

Oraintxe ari naiz liburu interesgarri bat irakurtzen, *En busca de nuestras huellas* (Debate argitaletxea). Bere egilea, Hans Kung, gai hauetan mundu osoan dagoen jakintsuenetako bat da. Irakurtzea gomendatzen dizuet, eta gauza asko argituko dituzue. Gehiago sakontzea nahi baduzue, eta gai bazarete, irakurri *Filosofía de la Religión* (Trotta argitaletxea).

Einstein (1879-1955) zientzia-gizonak hau esaten zuen: “Gauzarik ederrrena da misterioa esperimendatzea).

Ez azaleko pertsonak, sakonekoak baizik izaten jarrai. Horrexegatik, zorionak.

Enrike Larrañaga

**OHARRA**

Elgoibarko Izarra elkarteko lan-gileen batzarrak atzoko greba deialdiarekin bat egin zuen, eta, horrenbestez, BARREnek orrialde gutxiago ditu aste honetan.

**Barren**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [baren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:





Andres  
Alberdi

Krisiak

jota gabiltzan honetan (eta bart Athleticek ere ezin hobirik eskaini izan zigun honetan), gaurkoagatik

bestelakoak utzita, kontu arinez ari-

tzea hobe diagu, Angel. Anekdotak bat dakarkiat, barre-atari.

Ez diat izenik esango; gehienez ere, datu xume batzuk emango diot: Etikako irakaslea zuan, berrogeita hamabosten bat urtekoa, eta ez urrutikoa. Goizeko ilunarekin jaikita, presaka, sakristiako atea ixtea ahaztuta, han joan zuan egunkaria erostera lehendabizi, kafea hartzera gero, eta, kalean barrena, eskolara azkenik. Gizajoa!

## “Gaurkoagatik bestelakoak utzita, kontu arinez aritzea hobe diagu”

Zortzietan, hamalau urteko neska-mutilei eman ziean lehen eskola; bederatzietan, hamabost urtekoei bigarrena; eta hamarretan, jolas-garrian, komunera joanik, konturatu zera: “Dedio: brageta zabalik! A zer barreak egingo zituzten nire kontura. Ene, ene...!”.

Hura zuan lotsaren lotsa. Ondra-haizean mindua sentitu zuan. Nexka gaxteak batez ere gogoan, arima erabat etsita, lotsa gogorrean eraman zian gizajoko errekreoa. Gero, lotsagarri hori nolabait kendu nahian, lehen-go ikasleengana joan zuan atzera berriz, bere lotsagarritzko kontua adieraztera: “Halakoetan, aurrena konturatzen denak esan egin behar dio maiuari, ixteko zera...”. Nexka gaxte pinpirinak: “Esan zer...? Brageta ixteko? Hara bestea: inor ez gara konturatu ere egin eta!”.

Lotsa gorrian berriro aurpegia galduta, tximista baino gorriago alde egin zian ikasleen begien bistatik.

Irakaslearen despistea ikasleen diskrezioak estalita, hi!

Ziur baduala hik ere horrelako gertaeraren bat hire anekdotarioan.



Angel  
Ugarteburu

Kaiolako atea erdi zabalik somatu duenean, hara nondik atera zaigun zozoa gaurkoan! Ez jagok txarto, Andres, krisi sasoian barre egiteko motiboak autura ekartzea. Sendagai ona eta merkea dok barrea.

Irakasle horren antzerako trantzeak izango genduzan geuk ere. Ikasleek eurek kontauko balituzte, krisia gainditzeko beste sendagai izango gendukek. Izan ere, zenbat begi, klasea joan eta klasea etorri, gure zirkin eta keinu bakoitzari begira.

Atzo jazotakoa bezain fresko jaukat memorian orain kontatzera noana. Hogei urte edo izango dituk ordutik joanak. Goizeko azken klasea edo izango zuan. Ezin inondik ikasleen arretarik lortu eta argia biztu jatan:

“Izan ere, ohar garrantzitsu bat eman behar nizuen eta ia ahaztu egin zait” bota najuan, eskua buruan jarrita eta ahotsa aldatuz. Isiltasuna edo lortu eta gero:

## “Ez jagok txarto krisi sasoian barre egiteko motiboak autura ekartzea”

“Elgoibarko Izarrak parapente ikastaroa prestatu du astebururako. Karakartetik salto eta San Rokeko zelaietara”

Gehienak amuan kateatuta geratu zituan lehen unean, nahiz eta gero batzuek bai zera-ka sinesgogor plantak egin. Mila gunetan banatuta jagoan arreta zeharo neureganatuta klasea eroso samar emateko auke-rama eman zidaan oharrak.

Klasetik atera eta hara non datorkidan ikasle bat, gelako argiena berra, xehetasun bila:

“Non emon behar da izena ikastaro horretarako?”

“Zuen arreta lortzeko trikimailu baino ez dok izan, mutill!”

Haserre keinuz aldendu zuan. Pena ikasle finenari iruzur egin izana. Beste batzuk Karakateraino joan bazituan ere ez najuan damurik izango.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Haurdunaldia eteteko pilula zuzenean eskuratu daiteke botikan.

## Zer iruditzen zaizu hurrengo eguneko pilula errezetarik gabe erosi ahal izatea?



**Jon Lago**  
37 urte, saltzailea

Ondo iruditzen zait. Hurrengo eguneko pilulari buruzko informazio egokia ematen badute, ez dut uste arriskutsua izango denik. Hala ere, batzuk gehiegi erabiltzeko arriskua badago, baina jendea ondo informatuz gero, ez dut uste gauzak gaizki joango direnik.



**Begoña Bautista**  
36 urte, delineaizailea

Arriskutsua dela iruditzen zait. Jendeak gaizki erabili dezake, eta horrelako pilulak edonoren eskura jartzea ez dut ondo ikusten. Apur bat kontrolatu egin behar da. Pilulak garestiak dira, eta hori positiboa da, baina abortatzeko moldatzen diren bezala, pilulak erosteko ere moldatuko dira.



**Mertxe Ondarza**  
60 urte, etxekoandrea

Ondo ikusten dut, ez dut uste kezkatzeko kontua denik. Informazioa oso ondo emanda dago, eta ez dut uste arriskutsua izango denik. Akaso, norbaitek egingo du gehiegi-keriaren bat, baina, oro har, jendeak ondo pentsatuta erosiko duela uste dut.



**M. Anjeles Oñederra**  
69 urte, etxekoandrea

Ondo dagoela uste dut, baina ikusi egin beharko da epe luzera zer eragin sortuko duen hartu berri duten neurri horrek. Garrantzitsuena jendea informatzea da, eta botikan ondo azaltzen bazaizkio erosleari pilula horren ondorioak, ez da arazorik izango.

**GIDA KOMERTZIALA**  
**2009-2010**

Gida komertziala prestatzen ari gara,  
zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**

edo helbide honetara idatzi:

**[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)**



**Giza Eskubideen parkeko iturria arriskutsua da:**

“Polita da Giza Eskubideen parkeko iturria, eta ingurune hori asko janzten du, baina era berean, arriskutsua da. Joan zen as- tean bi urteko bi ume erori ziren uretara, eta handik irten ezinda geratu ziren. Ezbeharren bat gertatu aurretik, Udalak segurtasun neu- rriak hartu beharko lituzkeela iruditzen zait. Mila esker”.



**Sallobente-Ermuaran auzorako bidean sasi eta sastraka asko dago:** “IMH inguruan hasita, Sallobente-Ermuaran au- zorako bide bazterrean sasi asko dago. Ingurune oso polita da, eta jende asko joaten da egunero paseatzera, eta hobeto zaindu beharko lituzatekeela iruditzen zaigu. Akaso, lursail pribatuak izango dira, baina ingurune hori apur bat txukuntzeko eskatuko nioke dagokionari. Mila esker”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12

**Txalo bat Alzolako Zubibai elkarteari do- mekarako antolatu zuten irteeragatik:**

“Al- zolako Zubibai elkarteak antolatuta, Azpeiti- ko tren museoa eta Ekainberriko kobazuloan izan ginen domekan. Talde polita elkartu ginen, eta oso ondo pasatu genuen. Azpeititik Lasara trenez joan gi- nen, eta umeek izugarri disfrutatu zuten. Eskertzekoa da horrelako irteerak antolatzea”.

**Minbiziaren kontrako diru-bilketan parte hartu duten elgoibartarrei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzailleek:** “Maia- tzaren 10ean minbiziaren kontrako diru-bilketa egin zen Elgoibarren, eta guztira, 1.244 euro bildu genituen. Antola- tzaileek eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen horretan parte hartu zuten herritar guztiei”.

## ESKERTZA

**ARANTZA LARREA USANDIZAGA**

2009ko maiatzaren 13an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## I. URTEURRENA

**LAZARO AIZPIARTE LETE**

2008ko maiatzaren 23an hil zen.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 23,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



## Artetxe kalea eta Erretxindi auzoa urbanizatzeko lanak maiatzaren 25ean hasiko dituzte

Bestalde, Ubitarte Gain eta San Roke arteko biala egiteko lanak martxan dira

**M**aiatzaren 25ean hasiko dituzte Artetxe kalea eta Erretxindi auzoa urbanizatzeko lanak, Elgoibarko Udaleko Hirigintza arduradunak jakinarazitakoaren arabera. Artetxe kalean ur zikinak banatzeko sarea egingo dute. Lan horren aurrekontua 236.665 eurokoa da, eta 11 astetan amaitzea aurreikusten dute. Erretxindin, bestalde, zuhaitzen pasealekua luzatu, aparkalekua berrintolatu eta auzoa txukunduko dute. Lan horren aurrekontua 508.235 eurokoa da, eta 13 astetan amaitzea espero dute Udaleko arduradunek.

Bi lan horiek Estatuak emandako diruarekin burutuko dira. Estatuak ia bi milioi eurotako diru-laguntza eman dio

Udalari 2009. urterako, eta lau lan egin beharko ditu. Artetxe eta Erretxindikoaz gain, laster hasiko dira Aiastia-San Migel auzora edateko ura eroateko lanak eta Sigma auzoko eskailera mekanikoen obrak.

### San Rokerako biala egiteko lanak martxan

Bestalde, Ubitarte Gain eta San Roke kalea lotuko dituen bidea egiteko lanak joan zen astean hasi zituzten. Makinek ingurune horretan zeuden azken industria-eraikinak bota dituzte egunotan, eta Hirigintzako arduradunen esanetan, pare bat hilabetetan lanak amaituta egotea espero dute.



### Lorategia egingo dute Txankakuako autobus geltokiaren alboan



Elgoibarko itxura apur bat dotoretzeko helburuarekin, lorategi berria egiten dihardute 634 errepede ertzean, Txankakuako autobus geltokiaren aldamenean. Hirigintzako arduradunak esandakoaren arabera, gaizki aprobetxatutako berdegune bat zen hori, eta lorez apaintzea erabaki dute. Helburua ingurune horretatik pasatzen diren kanpotarrek Elgoibarko herriaren irudi polita hartzea dela gaineratu du.

### Bertsogintza egitasmoaren ikasturtea amaitu da

Gipuzkoako Bertsozale elkarteak antolatuta, *Ahozko-tasuna eta bertsogintza* egitasmoaren jaialdia eskaini zuten Ikastola eta herri Eskolako ikasleek martitzenean, Herriko Antzokian. Elgoibarko ikastetxeetako umeek bertsoaren bidez irudimena eta diskurtsoak garatzeko gaitasuna landu dituzte. Antzokia jendez gainezka zegoen, eta giro polita izan zen jaialdian.



## Izena **Silvio Vaz**



Azken urteotan Elgoibarren bizi den Silvio Vaz kubatarrak Eibarko merkatalgunearen logotipo lehiaketa irabazi du. *Euskarak ere saltzen du* kanpainaren barnean burutu da lehiaketa hori, eta Silviok berak azaldutakoaren arabera, *E* handi bat irudikatu du, Eibar eta euskara irudikatzeke. Silvio diseinatzaile grafikoa da lanbidez: bere enpresa propioa sortu berri du, eta horrez gain, Soraluzeko *Pil-Pilean* aldizkariako maketatzailea da. Kubatarrak 300 euroko saria jaso du merkatalguneko dendetan gastatzeko.

## Zenbakia **45.000**

Foru Aldundiak hiru milioi euro emango dizkie mila biztanletik gora dituzten Gipuzkoako 55 herrialderi lanpostuak sortzeko. Elgoibari 45.000 euro emango dizkio, eta diru horren laguntzaz bost lanpostu sortuko dira. Lanpostu bakoitzerako 9.000 euro emango ditu gehienez, eta gutxienez sei hilabeteko lan kontratuak egitea aurreikusten da. Azken datuen arabera, otsailaren 28an 495 langabetu zeuden.

## Irudia **Madalako kolunpioak Mintxetan**

Madalako parkean zeuden kolunpioak Mintxetako aire libreko igerilekuetan jarri dituzte. Materiala egoera onean zegoenez, Udaleko arduradunek aprobetxatzea erabaki dute. Mintxetako lurra aproposa zen horrelako jolas-gunea jartzeko, eta, bertan ipini dituzte. Aurtengo uda denboraldian umeei jolasteko aukera handiagoa izango dute Mintxetan.



## **Ekintzaile Eguna izango da gaur, Meka Institutuan**

Heziketa zikloetako ikasleek Ekintzaile Eguna ospatuko dute gaur Meka Institutuan, 12:00etatik aurrera. Ekintzaletzak dituen ikuspuntuak ikasleei ezagutaraztea, eta gizartean duen gararrantiaz jabetzea da antolatzaileen helburua. Ekitaldian hiru gonbidatu izango dira: Gaizka Gastiain ikasle ohiak beste hiru lagunekin sortu duen enpresari buruz berba egingo du; Anselmo Salazar Zeletako nekazariak bere baserriko esperientzia kontatuko du; eta, Gemma Agirregomezkorta Miski proiektuaren bultzatzaileak ekintzailetasun sozialaz berba egingo du.

## **Sukaldaritza begetarianoan izena emateko azken eguna**

Udaleko Gazteria Sailak sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa antolatu du, eta gaur izango izena emateko azken eguna. Interesatuak, Kultur Etxeko Gazte Informazio Gunean eman dezakete izena. Ikastaroa ekainaren 4an hasi eta hilaren 22an amaituko da. Klaseak Gaztelekuan eskainiko dituzte euskaraz, eta bertan parte hartzeko 65 euro ordaindu behar dira.

## **Nagusien Kontseilua sortzeko deia**

Debabarreneko Nagusien Kontseilua 2006an sortu zuten Eibarko hamar lagunek, eta euren helburua eskualde guztira zabaltzea da. Horretarako, elgoibartarrei deia egin diete, Elgoibarko Kontseilua sortzeko. Nagusiekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzte. Interesatuak 630 210 686 (Jesus Astigarraga) telefonora detu dezakete.

## **1954ko kintoen bazkaria**

Aurten 55 urte egingo dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 13an Sigma jatetxean. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte maiatzaren 29rako Euskadiko Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0007 21 0071056285

## Gure berbak

### Hiztegixa (5)

Gaurkuan ere, aurrekuetan bezela, Mendebaldeko hizkeretara hurreratzen gaittuen aldaera batzuk ekarriko ditut hona. Ez dira berbak, baizik berba jakin batzuen aldaera fonetikuak, gurian Mendebaldeko hizkeretan bezela gauzatzen diranak.

Esan biharra dago, hori bai, ezaugarri hauetako batzuek gurian ez debela beti Mendebalderago deben indarra.

Hona gure hizkeran erabiltzen diran ezaugarri eta aldaera batzuk:

- ◆ Hitz-amaieran: -e → -a: *lora, andra, landara, altara, laba...* (eta ez *lore, andre, landare, altare, labe...*).
- ◆ Hitz-barruan, a → e / i edo u-ren ondoren: *ikesi, u(g)ezaba, siketu, izen (izan), bihetza, maietza, i(g)uel...* (beste aldaera hauekin batera: *ikasi, u(g)azaba, sikatu, izan, bihatza, maiatza, i(g)ual...*).
- ◆ -e → -a / R-ren aurretik: *edar, baztar, txarri, izardi...* (eta ez ditugu erabiltzen *eder, bazter, txerri, izerdi...*). Baina ez da beti gauzatzen ezaugarri hau: adibidez, Eibarko *\*bardin, \*barri* formak ez ditugu Elgoibarren erabiltzen.
- ◆ -Al- → -El-: *geiztua, geizki, geiñera, nehikua...* (beste hauekin batera: *gaiztua, gaizki, gaiñera, nahikua...*).
- ◆ L > D: *bedarra, idarra, zidarra...* (eta ez ditugu erabiltzen *belarra, illarra, zillarra...*).
- ◆ Gramatika-gailuen artian, hau da, lokailu eta menderagailuen artian, -TU OSTIAN menderagailua eta BEHIÑEPEIÑ, OSTIAN eta OSTONTZIAN/OSTANTZIAN lokailu emendiozkoak erabiltzen ditugu (behintzat, ondoren eta bestelarekin batera).

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1973

Aste honetako erretratua Leire Alberdik bidali digu. 1973. urteko argazkia da, eta Elgoibarko ikastolan aterata dago. Urte haietan oso ondo pasatzen zuten Ikastolan, eta oroitzen oso onak dituzte. Horiek eta gehiago elkarri kontatzeko, noizean behin elkartzten dira gaur egun ere bazkariak egiteko, eta joan zen astean egin zuten azkena. Ikusi ditzagun zein diren argazkian azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Izortze Otaegi, Iosune Fernandez, Amaia Peñagari-kano, Ainhoa Idarraga, Esther Mugika, Iñigo Villaba, Ander Gonzalez, Enrike Arkauz, Gorka Mugika.

Erdian: Nekane Saez, Atsegin Uzuriaga, Ana Isabel Marcos, Nerea Elkorolribe, Maier Maiora, Leire Alberdi, Rosa M<sup>a</sup> Astigarraga, Alberto Garate, Igor Odriozola,

Behean: Alex Andres, Imanol Rodriguez, Izaskun Aierdi, Libe Arrieta, Marta Diego, Usua Gorostiza, Kristina Tejero, Andoni Arregi, Kristina Bergua, Lorea Iriondo



## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko  
erretratu zaharrak baldin badituzu,  
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.  
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

## Zangoak arin elgoibartarrek!

190 lagunek egin zuten Elgoibarko Mendi Itzulia

**M**endian ibiltzeko giro apartarekin esnatu zen domeka goiza Elgoibarren. Goiz hasi zen eguna Elgoibarko mendizaleentzat. Izan ere, 6:00etan zeukaten zita Plaza Handian eta Mendi Itzuliarekin. 38 kilometroko ibilbidea 190 lagunek egin zuten, bakoitzak bere martxan. Bidean indarrak berreskuratzeko hainbat leku prestatu zituzten Morkaiko mendizale elkarteko kideek, eta itzulia amaitu ondoren, bazkaria egin zuten Merkatu Plazako goiko lokalean. Beste behin ere, elgoibartarrek zangoak arinak dituztela erakutsi zuten. Mendi itzuliko argazki gehiago eta bideoa ikusteko: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



Argazkia: Rafa Alkorta



## Burgosen aurka jokatu du Haundik igoera faseko lehen kanporaketa domekan

Hiru kanporaketa gainditu beharko dituzte Bigarren B mailara igotzeko

**H**aundik Zallari 1-0 irabazi zion zapatuan Mintxetan, ligako azken jardunaldian, eta igoera fasea jokatzeko sailkatzea lortu du horrenbestez. Burgos CF futbol taldearen aurka jokatu du Haundik, Espainiako Bigarren B Mailarako igoera fasearen estreinako kanporaketa. Joaneke norgehiagoka domekan jokatu dute Burgosen, El Plantio futbol zelai mitikoan, 20:00etan.

Odeik 77. minutuan sartutako gol bati esker irabazi zuen Haundik Zallaren aurkako partida. Azken emaitza horrekin ligako hirugarren postuan amaitu dute Jagoba Arrasateren mutilek. Balentria handia da, denboraldi hasierako asmoak apalagoak baitziren: maila eustea, alegia.

### 500 zaletu inguru

Haundik 500 bat zaleturen aurrean jokatu zuen Mintxetan emozioz beteriko partida. Garaipena beharrezkoa zen, baina baloiak ez zuen Zallaren ate barruan sartu nahi, harik eta partidaren amaiera aldera, nerbioak eta ezinegona nagusitzen ari zirenean, Odeik gola sartu zuen arte. Ametsetan segitzeko aukera eman zuen golak.

### Autobusa Burgosera

Zaletuek Haundiri Burgosko zelaian indarra emateko autobusa jarri du CD Elgoibarrek. Izena Jai Alai eta Lanbroa taber-



netan eman daiteke, hamar euroren truke. Autobusa 11:00etan irtengo da.

Azpeitiko Lagun-Onak taldeak irabazi du liga txapelketa, eta horrekin, kanporaketa bakarra gaindituz gero igoera lortzeko aukera. Amurrio, Elgoibar eta Portugaletek, igoerarako kanporaketak jokatzeko sailkatutako beste hiru taldeek, hiru kanporaketa jokatu eta gainditu beharko dituzte Bigarren B Mailan jokatzeko.

## Debabarreko lehen triatloi esprinta egin dute



Joan den asteburuan Debabarreneko lehen triatloi esprinta egin zuten Deba eta Itziar artean, eta Urgazi Triatloi Taldeko lau kide zeuden irteeran: Ibon Gabilondo, Mikel Calvo, Mikel Etxabe eta Ainhoa Lendinez. Aurtengo zirkuituko lehen proba izateaz gain, Deba-Itziar triatloia erronka handia zen Urgaziokoentzat, ohiko entrenamendu-eremuan jokatzeko lehen triatloia baitzen.

Zapatu goiza eguzkitsu esnatu zen, haize gutxi eta temperatura atseginarekin. Hala ere, Debara iritsi eta itsasoak ikaratu egin zituen batzuk. Olatuak zeuden, eta azken unean antolatzaileek aldatu egin zuten igeriketa probaren norabidea.

Nesken artean seigarren amaitu zuen proba Lendinezek (argazkian). Ibon Gabilondo 19. postuan sailkatu zen, Mikel Calvo 99. lekuan, eta Mikel Etxabe 233. postuan.

## Futbol 7 Txapelketan izena emateko epea zabaldu dute

Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatzen duten Futbol 7 Txapelketan parte hartzeko izenemate epea maiztaren 27ra arte, eguaztenera arte, irekita dago. 1993 urtean edo lehenago jaiotzen direnak parte hartu dezakete zazpigarrena izango den edizioan.

Partidak zapatu goizetan jokatu dituzte Mintxetan eta Eibarko Unben. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu izena emateko. Antolatzaileek talde kopurua mugatu dute. Guztira 20 taldek parte hartu dezakete.

Olaizaga kirolegian edo Ipurua kirolegian eman daiteke izena.

# Eskubaloiko IMH taldea Espainiako Txapelketako finaletik kanpo geratu da

Senior mailako mutilen finala gaur jokatuko dute



**D**enboraldi bikaina egin dute eskubaloiko kadete mailako IMH taldeko neskek. Hori dela eta, Espainiako Txapelketako finalean jokatzeko aukera zuten. Joan den asteburuan Aula Cultural taldearen aurkako norgehiagokan erabaki behar zuten zein izango zen finalean egongo zen taldea, eta azken segunduan egindako golaren ondorioz, IMHkoak finaletik kanpo geratu ziren. Zoratzeko moduko amaiera eduki zuen partidak, eta Aula Culturalekoek 29-28ko emaitzarekin lortu zuten finalerako sailkatzea.

## Zortzi puntuko alde

Irabazten hasi ziren elgoibartarrak, eta lehen zatian zortzi puntuko aldearekin joan ziren aldageletara. Bueltan indartsu irten ziren Aula Culturalekoak, eta, saiatu baziren ere, IMHkoek izan izan zuten garaipena lortu. Bestalde, gaur senior mailako mutilen Euskadiko Kopako finala jokatuko dute Arratek eta Bidasoak, 20:30ean kiroldegian.

## Herriarteko Pilota Txapelketan aurrera egiteko Donostiaren kontra irabazi egin behar du Elgoibarrek

Elgoibarrek eta Donostiak gaur, barixakua, jokatu dituzte Herriarteko pilota txapelketako itzulerako partidak Ikastolako frontoian, 22:00etan hasita. Txapelketan aurrera egiteko, derrigor irabazi behar dute elgoibartarrek, izan ere, joaneko hiru partidak galdu egin baitzuzuten joan zen asteburuan.

## Atletismoan maila ona erakutsi dute elgoibartarrek

Joan den asteburuan Atletismo Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten Zumarragan alebinek eta infantilek. Elgoibartarrak bertan egon ziren, eta beste behin ere maila ona erakutsi zuten. Iñaki Sagarnak urrea eskuratu zuen 3.000 metroko proban. Lorea Santiagok zilarra lortu zuen 3.000 metrotan. Eta txandaka lasterka egiten ere urrea lortu zuten neskek, Ainhoa, Ioar, Jule eta Haizeak osatutako taldearekin.



## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

Bera-Bera **21** – Tecnifuelle Elgo. **24** (Seni. nes.)  
Cometel Elgo. **24** – Usurbil **24** (Jub. nes.)  
Aloña. **18** – Cometel Elgo. **21** (Jub. nes.)  
Aloña Mendi **22** – Alkorta Elgo. **27** (Seni. mut.)  
Bergara **23** – Ikus Elgo. **32** (Kad. nes.)  
Astigarraga Elgo. **20** – Pulpo **10** (Inf. nes.)  
Bankoa Elgo. **30** – El Pilar **33** (Inf. mut.)  
Txarriduna Elgo. **23** – Leitzarar **34** (Inf. mut.)

### FUTBOLA

Haundi **1** – Zalla **0** (3. maila)  
Elgoibar **7** – Tolosa **2** (Erreg.)  
Santo Tomas **1** – Elgoibar **4** (Jub.)  
Elgoibar **5** – Ostadar **2** (Kad.)  
Lengokoak **5** – Elgoibar **3** (Txiki)

### PILOTA

#### Herriarteko txapelketa

Donostia **22** – Elgoibar **1** (Kad.)  
Donostia **22** – Elgoibar **5** (Jub.)  
Donostia **22** – Elgoibar **20** (Nag.)

#### Debarroko txapelketa

Olalde **15** – Elgoibar **22** (Nag.)  
Bergara **22** – Elgoibar **16** (Jub.)

## AGENDA

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 23

**16:00** Ikus Elgo. – Urnieta (Kad.nes.)  
**17:30** Pneumax Elgo. – Urnieta (Kad.mut.)  
**19:00** IMH Elgo. – Egia (Kad.nes.)

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 23

**15:30** Elgoibar – Beti Ona (Jub.)  
**Domeka, 24**  
**12:30** Txiki – Touring CD

## IDARRAGA SARIA

### HAUNDIJO JOKALARI ERREGULARRENA

1. Minondo **81**
2. Pinilla **79**
3. Larrea **79**
4. Odei **75**

## Kalteak Mintxetako igerilekuetan

Joan den barixakuan, maiatzaren 15ean, Udal Kirol Patronatuko langileak Mintxetako igerilekuko makinaren gelako ateko giltzarrapoa hautsita zegoela konturatu ziren. Barrura sartu eta ezezagunen batzuek hainbat kalte eragin zituztela ikusi zuten: igerilekuko uraren ph-a eta kloroa neurtzeko aparatuetan kalte garrantzitsuak eragin zituzten. “Orain lapurreta ez da izan helburua, igerilekua martxan jartzeko beharrezkoak diren aparatuetan kalteak eragitea baizik”, azaldu dute.

## Musika-Udalekuak antolatu dituzte estreinakoz, 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat

Uztailaren 13tik 22ra arte iraungo dute udalekuek

**A**urtengo udan Elgoibarko umeek musika-udalekuetan parte hartzeko aukera edukiko dute. Aste bi jolasten, deskubritzen, interpretatzen eta musikaren mundu zoragarriaren alderdi ezberdinetan murgiltzen. Izan ere, Elgoibarko Kultura Sailak musika arloko kanpainak eta programak prestatzen aditua den enpresa baten laguntzarekin antolatu ditu estreinakoz Musika-Udalekuak. Izena emateko azken eguna ekainaren 11 da.

Uztailaren 13tik 24ra arte iraungo dute udalekuek, astelehenetik barixakura, 9:30etik 13:30era. Euskara hutsean emango dituzte klaseak, eta 4 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartuko dute.

### 25 euroko laguntza matrikulan

Jolastu, musika tresnak jo, musika konposatu, dantza eta eszenako arteak landuko dituzte. Helburua artearekiko sentsibilizazioa piztea eta handitzea da. Gainera, bi aste horietan ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera edukiko dute umeek, uztailaren 24an, 17:00etan egingo duen *Jaialdi-kontzertua Familian* ekimenean.



Matrikula egiteko ekainaren 11ra arteko epea dago, eta Kultura Sailak 25 euroko diru laguntza emango du. Pertsona baten matrikulak 90 euro balio ditu, 2 anai-arrebarenak 67 euro pertsonako, eta 3 anai-arrebarenak 55,5 euro pertsonako.

Elgoibarren horrelako udalekuak antolatu dituzten lehen aldia izan arren, Euskal

Herriko hainbat lekutan ekimena egiten urteak daramatzatela azaldu dute antolatzaileek, eta arrakasta handiarekin, gainera. Informazio gehiagorako deitu 679 996 981 telefono zenbakira.

Izena ematen dutenekin batzarra egingo dute ekainaren 24an. Bertan, udalekuetako ordutegia eta klaseen berri emanango diete gurasoei, besteak beste.

## Gotzon Garateren 'New York, New York' liburua berrargitaratu dute



Gotzon Garateren omenez, idazle elgoibartarraren *New York, New York* kronika liburua berriz ere eman du argitara Elkar etxeak. Hizkuntzaren gaurkotzeaz Ainhoa Lendinez Garate, idazlearen iloba arduratu da, eta azal berria erantsi diote. Hitzaurrea ere berria da, Juanra Madariagak idatzia.

*New York, New York* 1988an kalera tu zen estrainekoz. Liburu horrek zenbait berrikuntza ekarri zituen Garateren obran: batetik, kronikaren generoa landu zuen estreinako aldia zen; bestetik, euskalki guztietako ekarriak bereganatzeko asmo ageria erakusten du Gotzonen idazkerak.



# Eskualdeko zazpi musika eskoletako 650 ikaslek joko dute herriko kaleetan bihar

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolaren urteurrena ospatuko dute

**E**lgoibarko Inazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskolak 25 bete ditu aurten, eta urtean zehar hainbat ekimen antolatu dituzte urteurrena ospatzeko. Horietako bat bihar, zapatua, egingo duten jaialdia izango da. Debarreneko zazpi musika eskolek hartuko dute parte goizean zehar egingo dituzten kontzertu eta kalejiretan; guztira, 650 ikaslek.

Egitaraua 10:30ean hasiko dute Plaza Handian, musikariei ongietorria emateko aurreskuarekin. Elgoibarko musikariekin batera, eibartarrak, ermurrak, soraluzekoak, mendarorarrak, debarrak eta mutrikuarrak ere egongo dira. Urmeen koruak ere ongietorria emanango diete musikariei.

## Hiru eszenatoki

Herriko txoko guztietan barrena entzun ahal izango da musika bihar, baina, batez ere, Plaza Handian, Nafarroan Plazan eta Leku Eder parkean. Puntu horietan jazz, pop, dixi eta rock taldeek, bandek eta koruek egingo dituzte emanaldiak. Talde horiez gain, euskal dantzak ere egingo dituzte, eta txistulari, akordeoilari eta trikitalariek kalejirak egingo dituzte.

Baina biharkoa ez da izango antolatu duten ekintza bakarra. Hi-



labete amaierarako eskolaren historia jasotzen duen liburua kalera-tuko dute.

Bestalde, ikasturtea amaitzear dago, eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako kurtso bukaerako kontzertua egingo dute ikasleek hilaren 26an eta 28an, 19:30ean, musika eskolako auditorioan.

## Elgoibartarrek emaitza onak lortu dituzte Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketan

Asteburu honetan jokatu dira Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketako gazteen finalak. Zapatuan, Erreterian izan zen mutilena, eta, igandean neskena Legazpin. Eta hemen ere, Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleek beste behin maila ona erakutsi dute. Erreterian Elgoibarko mutilen partaide bakarrak parte hartu zuen, Aitor Asenjak; ligan bigarren postua eskuratu zuen, baina finalean urduritasuna zela eta seigarren geratu zen.

Domekan, berriz, neskak oso ondo aritu ziren, baina ez zuten titulurik lortu. Hona hemen nesken sailkapena:

### 7-11 urte bitartekoetan:

Leire Urzainki : 3. postua

Alaitz Egaña : 4. postua

Goizeder Etxeberria: 7. postua

Leire Astigarraga : 8. postua

### 11-15 urte bitartekoetan:

Ane Espilla : 4. postua

Arantxa Ferreiro : 5. postua

Andrea Arregi : 8. postua

Iraitz Gonzalez : 10. postua

Nerea Badiola : 11. postua



## Bisita gidatua, gaur naturari buruzko erakusketan

Joan den astelehenean ireki zuten *Objektibotik: euskal natura argazkitan* erakusketak, eta gaur, baxakua, 19:30ean bisita gidatua egingo dute.

Ongarri argazki taldeak eta *Euskal natura.net* atariak antolatutako erakusketak 32 argazki batzen ditu. Guzti-guztiak naturarekin erlazionatuta daude: landare, onddo, animalia eta paisaiak dira protagonistak.

*Euskal natura.net* web gunean diharduten argazkilarien obrak dira argazkiok, tartean, Antton Alberdi elgoibartarrak ateratakoak ere badaude.



## LANA

### ESKAERA

- Neska gaztea lanerako prest, bai nagusiak zaintzen, bai orduka garbiketa lanetan ere. ☎ **638 916 028**
- Neska gaztea lanerako prest, bai ontziak garbitzen, bai haurrak edo nagusiak zaintzen. ☎ **618 244 804**
- Uztailean klase partikularrak ematen ditut, LH eta DBHko ikasgai guztiak. ☎ **618 244 804**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 420 642**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **628 014 327**
- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **610 632 782**
- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **618 096 628**
- Neska gaztea, zerbitzari lanetan, umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **617 056 828**
- Emakumea etxeko zerbitzari, garbiketa eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **610 431 118**
- Mutila sukaldari laguntzaile, zerbitzari, pinturan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **647 999 092**
- Mutila sukaldari laguntzaile, zerbitzari, pinturan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **686 274 490**
- Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta etxeetan, tabernetan edota portalak garbitzeko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**

- Aholkulari nutrizionista batek zerbitzua eskaintzen du, hobeto elikatu edota pisua jaisteko. Inolako konpromisorik gabe. ☎ **687 077 398**
- Emakumea lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen esperientziarekin. ☎ **686 578 228 / 943 531 385**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsalde. ☎ **943 74 32 51**
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzen. ☎ **636 120 425**
- Emakumea garbiketa lanak, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko prest. ☎ **618 163 061**
- Neska lanerako prest, umeak edo nagusiak zaintzen eta etxeak garbitzen. Goizez. ☎ **943 74 00 65**
- Emakumea sukaldean laguntzeko, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **671 343 612**
- Emakumea garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **943 53 19 03 / 669 311 385**
- Klase partikularrak emango nituzke, ingelesez eta frantsesez, biak ama hizkuntza. Mintza praktikak egiteko. ☎ **688 683 274**

### ESKANTZA

- Margolari eta administrari bana behar da, esperientziarekin. ☎ **648 210 852**
- Zerbitzari gaztea behar da, ahal dela esperientziarekin asteburetan lan egiteko. ☎ **943 53 16 28**

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUA

- Bikote batek etxebizitza behar du alokatzeko. Elgoibar edo Mendaron. ☎ **677 023 673**
- Etxebizitza alokatzen da Elgoibarren, altzariek. ☎ **636 233 175**
- Etxebizitza alokatzen da Elgoibarko plazan, lau logela, egongela, bi bainugela, sukaldea, jangela eta terraza. ☎ **619 409 273**
- Etxea alokatzen da Gasteizen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, bi terraza eta ganbara. Dena altzariz jantzia. ☎ **628 232 931**

## LOKALAK

- 2. solairuko garaje itxia salgai Urasandin ("Anaiak"). (13+13 metro koadro). ☎ **620 856 768**

## BESTELAKOAK

- Egongelako altzariak saltzen ditut eta mikrouhin labea opari. ☎ **652 716 709**
- Etxeko altzariak, etxeko elektrotresnak, gortinak eta ohe-arropak behar dira. ☎ **676 444 171**

ZAPATUA  
MAIATZAK 30

GURE BEZEROEI  
URDAIAZPIKO  
IBERIKOAREN  
DASTAKETA  
ESKEINTZEN DIZUEGU



BARREN  
AZOKA

Merkatu Plazako Elkartea





Gure denda gure jaso if




• Zorionak, **Oier**, eguaztenean 9 urte betetzen dituzulako! Pa handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Julen**, bihar 2 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Goizean dantza eta arratsaldean lagunekin merienda. Ondo pasa biharko eguna. 12 tirakada eta mila muxu etxekoan partez.



• Zorionak, **Anartz**, eguaztenean 2 urte beteko dituzulako. Etxekoan partez, bereziki Irati eta Itziarren partez.



• Zorionak, **Leire**, atzo 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Marcos Miguel**, gaur 2 urte beteko dituzulako. Bi muxu potolo guraso, aiton-amona eta osaba-izeben partez.



• **Unai** dagoeneko 11 urte. Zorionak maite zaitugun partez.



• Zorionak, **Lorea**, 3 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat Garatetik eta Otsotxikitik!



• Zorionak, **Pakita**, bihar, maiatzak 23, 81 urte beteko dituzulako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Irene**, gure maiatzeko loria, zure bederatzigarren urtebetetzian. Pa haundi bat lbonen eta gurasuen partez.



• Zorionak, **Lander**, eta ondo pasa eguna guraso eta anaia lbonen partez.



• Zorionak, **Haizea**, maiatzaren 22an hamar urte egin dituzulako. Muxu asko familiakoan partez.



• Iritsi da maiatza eta berarekin zuen urtebetetzea, Zorionak, poltxak! 18 muxu handi kuadrilakoan partez.



• Auritz, Aitzol, Dabid eta Ima, zorionak zuen lehenengo jaunartzean maitasunez, familiakoan partez ondo pasa.

## OHARRA

Maiatzean agurrak kobratzen hasi gara.  
**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.**  
**Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



Tel.: 943 741 011

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

Zatoz informazio eske!





## 28 eguna

### *Musika*

**19:30** Kurtso amaierako kontzertua

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek kurtso amaierako kontzertua eskainiko dute. Musika Eskolako auditorioan.

### *Otoitz bilera*

**19:30** Asis Sarearen bilera

Asis Sareak otoitz bilera egingo du Santa Klarako kaperaan.

## 29 barixakua

### *Aisialdia*

**17:30** Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, bitik sei urtera arteko umeen eta horien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

### *Jaialdia*

**18:30** Ikastolako haur hezkuntzako jaialdia

Elgoibar Ikastolako haur hezkuntzako ikasleen jaialdia. Ikastolako frontoian.

### *Dastaketa*

**19:30** Ardo kata

Elgoibarko danborradak antolatuta, ardo kata izango da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



## Gure gomendioa

### 'Objektibotik: Euskal Natura argazkitan'

**Maiatzak 22, 19:30ean, Kultur Etxean** Ongarri argazki taldeak eta EHUK antolatuta, euskal naturari buruzko argazki erakusketa martxan da astelehenerik. Gaur, barixakua, bisita gidatua izango da 19:30ean hasita. Antolatzaileek euren egitasmoaren eta argazki erakusketaren berri emango dute, eta argazki bakoitzean ageri diren espezieei edo inguruneen buruzko xehetasunak eta bitxikeriak azalduko dituzte.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Ekonomia eta rocka

Norentzat: Unibertsitateko ikasle edo irakasleentzat  
Hizkuntza: Euskaraz  
Hasiera data: 2009-07-01  
Non: Eibarren  
Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Teknologia berriak gaur egungo hezkuntzan

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Euskaraz  
Hasiera data: 2009-07-01  
Non: Eibarren  
Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Egurra lantzeko tailerra

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Ikasleen arabera  
Hasiera data: 2009-07-06  
Non: Deban  
Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Pintura eta teknika piktorikoak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Ikasleen arabera  
Hasiera data: 2009-07-06  
Non: Deban  
Izena emateko: Kontsultatu

### Web diseinatzailea

Norentzat: Langabetuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-09-14  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

**DEBABE**  
**UDAL**  
EUSKALTEGIA



## Lan poltsa osatzeko IRAKASLEAK behar dira

Oinarriak eskuratzeko [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) helbidean edo Udal Euskaltegian bertan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Nafarroa Enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel.: 943 74 27 31



Upaiz zaharra, 14  
Tel.: 943 741 552 / 606 431 120  
www.biokdekorazioa.com  
biokdekorazioa@euskalnet.net

## Biok Dekorazioa lekuz aldatu da. Gaur, barixakua, lokal berria inauguratuko dugu Upaiz Zaharrea. Etor zaitezte gure denda berria ezagutzera!



### Norentzako antolatu duzue Biok denda?

Etxea berriztatu nahi duen bezeroari zerbitzua eskaintzeko planteatuta dago, bai berriztatzea bere kabuz egin behar badu, gure doako aholkularitza alorreko profesionalakin, bai lan osoa geure profesionalak egin behar badute, konpromisorik gabeko aurrekontua eskatuz gero.

### Denda berriak zer berrikuntza dakar?

Nobedadea makina tintometrikoa da. Geure kolore sortatik zeuk aukeratutako kolorea berehala prestatu diezazukegu. Horretarako behar dituzun tresnez hornituko zaitugu. Horrez gain, oso erraz jartzen diren gortina aukera zabala ere badugu: estoreak, veneziar pertsiak, gortina bertikalak eta abar. Bestalde, ondorengoaren aukera zabala ere badugu: parket flotatzaile eta laminatuak, olio pinturak eta margolarientzako erremintak (kaballeteak, mihiseak, pintzelak...).



**Kalitatea eta prezioa kontuan hartuta, zer pintura mota da egokiena?**  
Prezio eta kalitateari dagokionez, Aiadek pintura fabrikarekin lan egiten dugu. Entzute handiko enpresa da dekorazio alorrean, eta kalitateagatik hainbat sari eman dizkiote. Gainera, oso prezio konpetitiboekin egiten du lan.



**Zein da joera gaur egun, pintura ala papera? Behar bada bien arteko nahasketa?**

Pintura da nagusi. Gehienek akabera lisoa nahi izaten dute. Hala ere, papera indar handiz hasi da itzultzen. Bien arteko konbinazioa jende askok eskatzen du, baina aukera oso zabalda dira.

**Zer abantaila du parketak? Itxura denez, oso erraz jartzeko moduko parketa duzue. Parketa jartzeko jarraibideren bat emango diguzu?**

Parketaren abantaila nagusia zera da: lan handirik egin gabe lur berria jarri dezakezu etxean. Gure parketek ez dute kola beharrik junturatan. *Uniclick* sistemaren bidez, piezak ezin hobeto lotuta gelditzen dira, eta junturak ez dira irekitzen. Nahikoa da lurra maila berean berdinduta badago. Baldosa, tarima edo sintasol ganean jarri daiteke. Piezak elkarren artean lotu beharra dago, puzzlea balitz bezala. Beharrezko erremintak oinarritzkoak dira: kalatzeko zerra edo zerra zirkularra baino ez da behar.



**Krisi sasoiari, nola animatuko zenuke jendea etxean obrak egin dezan?**

Zailtasun urte honetan, neurrirra eginiko finantzaio sistema jarri du martxan Biok Dekorazioak hala nahi duten bezeroentzako, etxean lanak egiteko: sei hilabeteetan interesik gabe ordaintzeko aukera dago.

**Etxean lanak hasterakoan, zer da garrantzitsuena?**

Profesional aditua izatea da garrantzitsuena, eskaera guztiei irtenbidea emateko. Horretarako, lehen egunetik konfiantza eman behar dute, eta lana amesgaizto ez bihurtzeko baliabide guztiak jarri behar dituzte.



**Elgoibarko fatxadak gero eta koloretsuagoak dira. Zer iruditzen zaizu herria hartzen ari den itxura?**

Pixkanaka fatxardetan kolore biziagoak jartzen auzartzen da jendea. Biok Dekorazioan, inolako kosturik gabe, zure fatxadaren fotomontajea egingo dizugu, kolore aukera batzurekin, gutxi gorabeherako ideia hartzeko. Fatxadak berriztatzeak herrien irudia aberasten du, eta horrexegatik Udalak sustatu beharko lukeela uste dugu.

**DBH**  
amaitu ondoren

**Heziketa Zikloak**  
**Erdi-Maila**



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**2 urte**

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantentimendu elektromekanikoa

**Titulua:** Teknikaria

**Batxilergoa**  
ikasi ondoren

**Heziketa Zikloak**  
**Goi-Maila**



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**2 urte** ..... + 3 urte = eman 5ekoak!

- Proiektu mekanikoen garapena
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Industri ekipoen mantentimendua

**Titulua:** Goi-mailako teknikaria

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza irakaskuntza Eleanitza

**Goi-Mailako Zikloen**  
ondoren

**IMH Ingeniaritza**  
**Eskola**



ingeniaritza imh

**+ 3 urte = eman 5ekoak!**

- 3 urteko lan esperientzia
- Ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako Itunean egokitutako titulua

**Titulua:** Ingeniaria

Ikasi eta lan txandakako metodologia irakaskuntza eleanitza



## ATE IREKIAK (zikloak eta ingeniaritza):

### Maiatzaren 30ean, larunbatean – goizeko 11:00etan

